



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek Mikeldiko idoloarentzako lekuri onena aztertzeke eskaerea egin dabe

Bilbon, 2013ko irailaren 26an.

Bizkaiko Batzar Nagusiek Arauz besteko proposamena onartu dabe gaur batzarretako talde guztien adostasunagaz, Foru Aldundiak Mikeldiko idoloa izenekoarentzako lekuri hobereana eta babesa bilatu daian. Euskadiko sinbolo artistiko zaharrenetakoa dan hori Bilboko Zazpi Kaleetan dagoan Euskal Museoaren kanpoko klaustroaren erdian dago gaur egun. Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztu dauen ekimenaren helburua idoloaren “egoera txartzea” saihestea eta “kontserbazino egokia bermatuko dituen neurriak hartzea” bultzatu gura dau.

Mikeldiko idoloa, euskal artearen “funtsezko” pieza, Arturo Aldecoaren (PP) berbetan, lau hankako bat irudikatzen dauen hare-harriz egindako irudia da, eta dirudienez, erromatarren aurreko garaikoa da, II. Burdin arokoa hain zuzen be (K.a. IV.-II. mendeen artekoa). Denporea igaro ahala, atmosferako agenteek kalteak eragin ditue monumentuan. Hori dala eta, batzordekide popularrak “gaixoarentzako” beste leku bat aztertzea eskatu dau “leku itxia eta giro kontrolaua izango dauena, ahal baldin bada”.

Josune Ariztondo Kulturako diputadua PP-k eskatuta agertu da saioan, maiatzaren 20an monumentuari egin jakon hiru dimentsinotako eskaneatzearen emaitzak aurkezteko. Ezin izan ditu Unibersidadeko ingeniari teknikoak eta topografoak egiten ari diran txosten horren ondorioak aurreratu, oraindino bukatu barik dagoalako. 3D-n egindako azterketa horretatik ateratako lehenengo datuetako batek erakusten dauenez, piezak 1.560 kiloko pisua dauka. Ariztondoren berbetan, azterketa bukatu eta gero, beharbada animaliarene irudiak eukazan inskripzino zaharrak ezagutzeko aukerea izango dogu, inskripzino horreek egon baegozala badakigu eta. Hori baieztetan bada, “Bizkaiko eta Euskal Herriko elementu epigrafiko zaharrenen” aurrean egon gaitekez, Arturo Aldecoak, PP-ko batzordekideak, esan dauenez.

BILBOKO AZKENEKO KAI-GARABIA

Batzordeak, Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez hartutako akordioaren bitartez, Zorrotzan (Bilbon) dagoan azkeneko kai-garabiaren jaubea dan portuko erakundeagaz harremanetan jarteko eskaerea egin deusie Aldundiari eta Bilboko Udalari, alkarren artean garabi hori mantentzeko eta Bilboko auzo horretan kontserbetako aukerea negoziatuko, Euskalduna ontzioletako Karola garabiagaz bere egunean egin zan moduan. PP taldeak aurkeztutako proposamenak batzarretako talde guztien aldeko botoa jaso dau. EAJ-PNV-k, baina, zalantzen bat erakutsi dau, plataforma une honetan beharrean dagoalako, eta bere teknologia “aurreratuak hainbat hamarkadaz” beharrean jarraitzeko aukerea emoten dauelako.

OROZKOKO SANTA MARINA ERMITEA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ildo berari jarraituz, batzar nagusiek argi berdea emon deusie, kontrako eretxi barik, PP-ren beste ekimen bati. Ekimen horretan eskaerea egiten jako Foru Gobernuari, Orozkoko Udalagaz alkarlanean, Santa Marinako ermitea barriztetako auzotarrak egiten dabilzan ekimenean lagundu daian. Eztabaidan, EH Bilduk adierazo dau denpora gitxi barru ekimen bat aurkeztuko dauela batzarretan, holango eraikinetarako erispide “orokorra” hartzeko. Kontuan izan behar da Bizkaian 500 ermita baino gehiago dagozala, Juan Oterminek, PSE taldeak batzordean daukan bozeroaleak, adierazo dauenez. Holan, Bizkaiko Batzarretan gai horri buruzko ekimen piloa aurkeztea saihestu gura dabe.

CABO VILLANOKO BATERIA MILITARRA

Saio berean, PSE, EH Bildu eta PP taldeek euren botoak (7) batu ditue, Foru Aldundiari eskaerea egiteko, Gorkizen dagoan Cabo Villanoko bateria garbitzeko, itxuratzeko eta balioa emoteko plana bultzatu daian, eta Eusko Jaurlaritzari, Kultura Ondasun babesa izateko aukerak aztertzeke espedientea abiatuazoteko eskaerea egiteko. PP-ren eretxiz, 40ko hamarkadan eregi zan eta bunker batek, artilleriako piezetarako hiru plataformak, kanoi baten aztarneke, guardiako postu batek, deposituek eta galeria batzuek osatutako eraikin militar moltso hori Estatuak babestutako moltsoa da, baina oraindino ez dago euskal kultur ondarearen barruan.

EAJ-PNV-ko batzarretako taldeak ez dau bat egin ekimenagaz, moltso militar horrek “ez daukalako interesik” Eusko Jaurlaritzako teknikarientzat, Jon Sánchez batzordekide jeltzaleak adierazo dauenez. Ganera, bateria militarra, Espainiako armadaren lurretan dago. Hori dala eta, Euzko Abertzaleak taldearen eretxiz, defentsa sistema horren mantentze eta zainketa lanak Espainiako estaduak egin behar ditu, eta ez euskal administrazioek.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

COMISION DE CULTURA Y EUSKERA

Las Juntas Generales piden que se estudie otra ubicación para el ídolo de Mikeldi

En Bilbao, a 26 de septiembre de 2013.

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado hoy por unanimidad de todos los grupos junteros, una Proposición No de Norma para que la Diputación Foral impulse un estudio que busque la mejor ubicación y tratamiento del llamado Ídolo de Mikeldi, uno de los símbolos artísticos más antiguos de Euskadi, que preside en la actualidad el claustro exterior del Museo Vasco del Casco Viejo de Bilbao. La iniciativa presentada por el grupo Popular Vizcaíno (PP) pretende “evitar su deterioro” y “promover la adopción de las medidas necesarias para garantizar su correcta preservación”.

El Ídolo de Mikeldi, pieza “clave” del arte vasco, según Arturo Aldecoa (PP), es una figura de piedra arenisca que representa un cuadrúpedo y que data, al parecer, de la época anterior a los romanos, concretamente, de la II Edad de Hierro (entre los siglos IV al II a. C.). Con el paso del tiempo, el monumento se ha visto perjudicado por los agentes atmosféricos, lo que ha empujado al poder popular a pedir que se estudie otra ubicación para el “enfermo, posiblemente un sitio cerrado y con un ambiente controlado”.

La diputada de Cultura, Josune Ariztondo, que comparecía en la sesión a petición del PP para ofrecer los resultados del escaneo tridimensional que se hizo al monumento el 20 de mayo, no ha podido avanzar las conclusiones de este informe que están realizando dos ingenieros técnicos de la Universidad, pues está todavía sin terminar. Uno de los primeros datos extraídos de este análisis en 3D desvela que la pieza pesa 1.560 kilos. Para Ariztondo, cabe la posibilidad de que las antiguas inscripciones que se sabe contenía la figura animal, puedan ser desveladas tras concluir el estudio. De confirmarse este hecho, nos podríamos encontrar ante los elementos epigráficos “más antiguos de Bizkaia y el País Vasco”, según Arturo Aldecoa, poderado del PP.

ÚLTIMA GRÚA DE ESTIBA DE BILBAO

La Comisión ha acordado también por unanimidad que las Juntas Generales de Bizkaia insten a la Diputación a contactar con la entidad portuaria propietaria de la última grúa de estiba existente en Zorrotza (Bilbao) y el Ayuntamiento de Bilbao, para negociar conjuntamente el mantenimiento de dicha elevadora y su correcta conservación en el barrio bilbaíno, como ocurrió en su tiempo con la grúa Karola en los antiguos astilleros Euskalduna. La propuesta del PP ha recibido el apoyo de todos los grupos junteros. El PNV ha mostrado, sin embargo, alguna reserva al considerar que la plataforma se encuentra en estos momentos en activo y con tecnología “avanzada” para seguir funcionando durante “varias décadas” más.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ERMITA SANTA MARINA DE OROZKO

En la misma línea, la cámara vizcaína ha dado luz verde, sin fisuras, a otra iniciativa del PP en la que se solicita que el Gobierno foral, en coordinación con el Ayuntamiento de Orozko, colabore en la iniciativa vecinal de restaurar la ermita de Santa Marina. En el debate, EH Bildu ha anunciado una próxima iniciativa parlamentaria para buscar un criterio “general” para este tipo de edificios, ya que en Bizkaia existen más de 500 ermitas, según ha desvelado Juan Otermin, portavoz del PSE en la comisión. Quieren evitar así un aluvión de iniciativas en el parlamento vizcaíno.

BATERÍA MILITAR DE CABO VILLANO

En la misma sesión, PSE, EH Bildu y PP han unido sus votos (7) para sacar adelante una iniciativa que insta a la Diputación Foral a impulsar un plan para la limpieza, adecentamiento y puesta en valor de la batería de Cabo Villano en Gorniz, y a promover ante el Gobierno Vasco la incoación del correspondiente expediente para estudiar su posible protección como bien cultural. Según el PP, este conjunto de edificaciones militares construida en los años 40, compuesta por un búnker, tres plataformas para piezas de artillería, restos de un cañón, un puesto de guardia, depósitos y unas galerías, figura como conjunto protegido por el Estado, pero no se incluye aún en el inventario del patrimonio cultural vasco.

El grupo juntero del PNV se ha desmarcado de la iniciativa, ya que este conjunto militar “no tiene interés” para los técnicos del Gobierno Vasco, según ha revelado Jon Sánchez, apoderado jeltzale. Además, la batería militar se encuentra ubicada en suelo propiedad del ejército español, por lo que los Nacionalistas Vascos entienden que el mantenimiento y preservación de este sistema de defensa corresponde al Estado español y no a las administraciones vascas.